



ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, ZEINAREN BITARTEZ EZESPENA EMATEN BAITZAI ARRANKUDIAGAKO KAMARAKA PILOTA KIROL ELKARTEAREN ERREKURTSOARI, EGINTZA HAU HARTU BAITU XEDETZAT: ZEHAPEN EDO ZIGOR BAT, EUSKAL HERRIKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETAN –ESKUZ BINAKAKO ESPEZIALITATEA, GAZTEEN MAILA– 2015EKO URTARRILAREN 16AN GERTATUTAKO GORABEHERA BATZUK DIRELA ETA.

Espediente-zenbakia: 5/2015

AURREKARIAK

Lehena.- 2015eko urtarrilaren 30ean eman zitzaion sarrera errekurtso bati, [REDACTED] jaunak aurkeztu baitzuen Arrankudiaga klubaren izenean eta ordezkartzan, klub horretako presidente den aldetik, Txapelketako eta Jurisdikzioko Batzordearen urtarrilaren 23ko Ebazpenaren aurka. Ebazpen horretan, zehapen hau ezarri zitzaion aipatu klubari: taldea txapelketatik at uztea, eta jokotutako partiden emaitzak bertan behera uztea.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtso hori izapidetzea onartu, eta espedientea eskatu zion Euskadiko Pilota Federakundeari; era berean, alegazio-izapidea eskaini zien hala federazioari berari nola Oberena kirol-klubari eta Zaramaga pilota-klubari, baita aukera eman ere egokitzea jotako frogak aurkezteko, hala nahi bazuten.

Hirugarrena.- Otsailaren 28an bete zuen eskatu zitzaiona Euskadiko Pilota Federakundeak, eta espedientea bidali zuen. Federazioak eta klubek ez dute alegaziorik aurkeztu.



Laugarrena.- Apirilaren 9an, KJEB honek zera eskatu zion Federakundeari: errekurtsogileak bere idazkian aipatzen dituen ziurtagiri medikoak, ez baitziren ageri bidalitako administrazio-espeditentean. Era berean, informazioa eskatu zuen, ea zehapenak aipatzen duen 5. artikulua bat datorren ondorengo estekan ageri den arauan dagoenarekin: <http://www.euskalpilota.org/doc/documentos/EH%20kluben%20liga%20Araudia-Normativa%2012-13.pdf>

Bosgarrena.- Apirilaren 16an, Federakundeak ziurtagiri mediko bat bidali zuen –2015eko urtarrilaren 2koa, [REDACTED] jaunarena— eta hau adierazi:

Idazkaritzatik jakinarazi dutenez, honekin batera doan ziurtagiri medikoa bidali zen, baina ez zitzaien helarazi diziplina-batzordeko kideei.

Ziurtagiri hori ikusita, ez da arrazoirik ikusi jarduerak deuseztatu eta atzera eramateko; izan ere, ez baitu eraginik dagokigun kasuan.

Lehenik eta behin, ez agertzearen aurreko egun batzuei buruzkoa da medikuaren agiria, baita partida horren egunari buruzkoa ere.

Hau berresten du: kontua partida baino askoz lehenagokoa izateaz gain, klubak bazekiela pilotari horrek ezingo zuela joan. Klubaren obligazioa, beraz, ekipo edo talde osoa eramatea da, eta kontuan hartu behar da zehapena ez zaiola kirolariari jarri ez joategatik, baizik eta klubari, ordezkoak eduki behar dituelako. bai gorabehera horretarako bai beste batzuetarako.

Federakundeak ez du erantzunik eman aplikatutako aruari buruz. Batzorde honen ustez, beraz, aurreko atalean aipatutakoa da.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Honako arau hauek ikusita, KJEB honek badu errekurtsio hau aztertzeko eskumenik: Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.a) artikulua, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzeari buruzko urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua.

Bigarrena.- Alderdietako batek ere ez du zalantzan jarri Arrankudiaga kluba ez zela agertu Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketara, eskuz binakako modalitatera, gazte edo jubenilen kategorian. Hala ere, ez datoz bat gertaera horren kalifikazio juridikoari dagokionez.

Alde batetik, Euskal Pilota Federakundeak larrizat jotzen du ez agertze hori, Euskadiko kirolari buruzko 14/1998 Legearen 110. artikulua aurreikusitakoaren arabera, eta zehapen hauek lotzen dizkio: taldea txapelketatik kanporatzea, kanporatutako taldeak jokaturako partiden emaitzak deuseztatzea eta klubari aukera kentzea hurrengo denboraldian (2015-2016) parte hartzeko klubaren arteko euskal ligaren txapelketako kategoria eta modalitate beretan (horretarako lekua lortu arren). Horretarako oinarritzat hartu ditu Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketaren arauak (5. artikulua)¹, 14/1998 Legearen 112. artikulua xedatu duenarekin lotuta.

Hau dio 5. artikulua horrek:

“5.1.- ARAU-URRATZEAK ETA ZIGORRAK

.....

¹ Indarrekoztat jotzen dira Euskal Herriko Kluben arteko 2012-2013 Txapelketaren arauak [<http://www.euskalpilota.org/doc/documentos/EH%20kluben%20liga%20Araudia-Normativa%2012-13.pdf>], alderdietako batek ere ez duelako beste araurik aipatu.



*TXAPELKETAN EZ AGERTZEA (AURREKO PARAGRAFOAN JASOTAKOAZ
APARTE) EDO ALINEAZIO OKERRA EGITEA:*

-Taldea txapelketatik at geratuko da.

-Kanporatutako taldeak egindako partiden emaitzak bertan behera utziko dira

-Klubak ezingo du kategoria horretako espezialitate horretan parte hartu EH-ko Kluben Arteko Txapelketaren hurrengo denboraldian (2013-2014) nahiz eta horretarako postua lortu, eta postu hori Lurralde Txapelketako hurrengo taldeari eman beharko dio, eta horrela hurrenez hurren.

Errekurtsioa aurkeztu duen klubak, bere aldetik, hau eskatu du: zehapena deusezta dezatela; neurriak har ditzatela Federakundeak partidarako deialdia egiteko erabili prozedura berriz ere ez gertatzeko, eta eragindako kalteak ordain diezazkitela. Alegazio hauek aurkeztu ditu oinarritzat

1.- Partida ostiral baterako jarri zela, eta eguneko aste horretan ezin dela partidarik jokatu, parte hartzen duten klubek alde aurreko akordio sinatuarekin ez bada, txapelketaren arauen 6. artikularen arabera.

2.- Urtarrilaren 13ko arratsaldean jakin zutela urtarrilaren 16ko partida goizeko 11etan jokatuko zela, eta, beraz, parte hartzen zuten klubek 72 orduko aurrerapenarekin adostu beharra zutela.

3.- Hiru pilotaritik bi lesionatuta zeudela.

4.- Ez dela euskararen erabilera errespetatu, euskarazko komunikazio edo jakinarazpenak bidaltzea eskatu baitzuten.

Hirugarrena.- Ondo aztertuta espedienteak, arauak eta bi alderdien alegazioak, bidezko da errekurtsioa ezetsi eta zehapena berrestea, arrazoi hauek aintzat hartuta:



1.- Hau dio txapelketaren arauen 6. artikulua, errekurtsua aurkeztu duen klubak alegatu baitu:

"JOKATZEKO JARDUNALDI GAIA

Lehentasunez, partidak asteburuetan jokatuko dira. Larunbateko 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara (jaialdiaren hasiera) eta igandeko 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara (jaialdiaren hasiera) hastekoak diren partidak, jokatzekeo jardunaldi gaitzat hartuko dira. Hala ere, Euskadiko Federakuntzak astean zehar jardunaldiren bat antolatu dezake egutegia egokitzeko.

Finalak, araudi honen 3. atalean adierazitako epean azaldutako eskaerak kontuan harturik, EEPFak erabakitako egun, toki eta orduan jokatuko dira.

Bi taldeak ados izanik, jokatzekeo eguna aurrera dezakete jardunaldiko astean zehar, baina inolaz ere atzeratu. Kasu hauetan, partida/k jokatu baino 72 ordu lehenago, EEPFari idatziz jakinaraziko zaio, araudi honen bukaeran azaltzen den inprimakia betez. (2. ERANSKINA). Aipaturiko agiria (aurrerapena) bi taldeek adostutako egun, ordu eta tokia zehatuaz biengaitik zigilatua eta izenpetua badago, inolako arazorik suertatuz gero data hori baliogabetua geratuko litzateke.

....."

Azaldutakotik ondorioztatzen denez, ez da bidezkoa klub errekurtsogilearen 1. eta 2. alegazioak onartzea; izan ere, nahiz eta egia izan partidak asteburuetan jokatuko direla lehentasunez, Federakundeak ez du inolako oztoporik partida ostiral batean jartzeko; egin-eginean ere, partida aurreratu nahi denean baino ez da behar zerikusia duten klubaren adostasuna —baina hori ez da aztertzen ari garen kasua—, eta, halakoetan, 72 orduko aurrerapenarekin jakinarazi behar zaio Federakundeari.

2.- Espedientean badago ziurtagiri mediko bat, pilotarietako bati egindako azterketa medikoa egiaztatzen duena; ez, ordea, beste biei dagokiena. Horrenbestez, ez da egiaztatuta geratzen klub errekurtsogilearen 3. alegazioa.



3.- Euskararen erabileraren gaineko arauak urratu izanari buruzko alegazioari dagokionez, Batzorde honek ez du zertan gehiago sakondu; izan ere, errekurtsogileak ez duenez defentsa-gabeziarik alegatu, ez dakar zehapen-ebazpenaren deuseztagarritasunik.

Horiek horrela, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU:

1.- Ezespena ematea Arrankudiagako Kamaraka Pilota Kirol Elkartearen errekurtsolari, egintza hau hartu baitu xedetzat: zehapen edo zigor bat, Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketan —eskuz binakako espezialitatea, gazteen maila— 2015eko urtarrilaren 16an gertatutako gorabehera batzuen ondoriozkoa.

2.- Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo, errekurtsogileek hala nahi badute, beren bizilekuari dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 11.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA